




GERNUA JASOTZEA OHIKO KULTIBORAKO

BEHARREZKO MATERIALA

Tapoi berdeko huts-hodia, azido borikoarekin (hodiaren hondoan hauts zuria)

EZ DESESTALI HODIA, HUTSA GALDUKO LITZATEKEELAKO. JARRAITU ERABILTZEKO JARRAIBIDEEI DIAGRAMAN BEHERAGO



EMAKUMEENTZAKO BILKETA-TEKNIKA


1. Ahal dela, goizeko lehen mikzioa jasoko da.
2. Eskuak urez eta xaboiz garbitu eta eskuoihal garbi batekin lehortu.
3. Garbitu bulba aurrealdetik atzeraka, urarekin bustiz, xaboi-hondarrak kentzeko.
4. Bereizi ezpain handiak eta eduki bereizita gernua hartu arte.
5. Egin txiza komunera eta jaso aho zabaleko edukiontzian mikzioaren batez besteko zatia (bota komunera zorrotadaren hasierako eta amaierako tartea).
6. Itxi ondo aho zabaleko edukiontzia eta altxa taparen zigilu itsaskorra. Jarri huts-hodia, tapoia beherantz duela, edukiontzia zuloaren gainean, eta sakatu orratz estalia sartzeko. Itxaron hodia bete arte.
7. Eman osasun-langileei huts-hodia gernuarekin bakarrik. Bota aho zabaleko edukiontzia gainerako gernuarekin.



BEHARREZKO MATERIALA

Tapoi berdeko huts-hodia, azido borikoarekin
(hodiaren hondoan hauts zuria)

**EZ DESESTALI HODIA, HUTSA GALDUKO
LITZATEKEELAKO. JARRAITU ERABILTZEKO
JARRAIBIDEEI DIAGRAMAN BEHERAGO**




GIZONENTZAKO BILKETA-TEKNIKA

1. Ahal dela, goizeko lehen mikzioa jasoko da.
2. Eskuak urez eta xaboiz garbitu eta eskuoihal garbi batekin lehortu.
3. Glandea xaboi neutroarekin garbitu eta hondarrak kendu ur ugariz.
4. Prepuzioa guztiz atzeratu lagina hartu arte.
5. Egin txiza komunera eta jaso aho zabaleko edukiontzian mikzioaren batez besteko zatia (bota komunera zorrotadaren hasierako eta amaierako tartea)*.
6. Itxi ondo aho zabaleko edukiontzia eta altxa taparen zigilu itsaskorra. Jarri huts-hodia, tapoia beherantz duela, edukiontzia zuloaren gainean, eta sakatu orratz estalia sartzeko. Itxaron hodia bete arte.
7. Eman osasun-langileei huts-hodia gernerarekin bakarrik. Bota aho zabaleko edukiontzia gainerako gernerarekin.

* Medikiak Chlamydia trachomatis-en azterketa eskatzen badu soilik lortu behar da zorrotadaren lehen zatia; kasu horretan, behar bezala jakinaraziko zaizu.



ESFINTERRAK KONTROLATZEN EZ DITUZTEN HAURREN POLTSA PEDIATRIKOA

Poltza pediatrikoa	Tapoi berdeko hodia azido borikoarekin (hodiaren hondoan hauts zuria)
	<ul style="list-style-type: none"> • Urokultiborako huts-hodia. • EZ DESESTALI HODIA, HUTSA GALDUKO LITZATEKEELAKO. JARRAITU ERABILTZEKO JARRAIBIDEEI DIAGRAMAN BEHERAGO
	

1. Ahal dela, goizeko lehen mikzioa jasoko da.
2. Garbitu kontu handiz genitalak eta perineoko eremua gaza esterilen eta serum fisiologikoaren bidez. Pomadaren hondarrak kendu, halakorik bada.
3. Jarri plastikozko poltsa edo kolektorea.
4. Zaindu poltsa 30 minutuz behin, eta haurrak pixa egin bezain laster, kendu egin beharko da.
5. Bota poltsaren edukia aho zabaleko ontzi esterilean. Itxi ondo aho zabaleko edukiontzia eta altxa taparen zigilu itsaskorra. Jarri huts-hodia, tapoia beherantz duela, edukiontzia zuloaren gainean, eta sakatu orratz estalia sartzeko. Itxaron hodia bete arte.
6. Eman osasun-langileei huts-hodia gernerarekin bakarrik. Bota aho zabaleko edukiontzia gainerako gernerarekin.
7. Mikzioa ordubete egin ez bada, ekintza errepikatu egingo da eta poltsa berri bat jarriko da.

KOPURUA

- Urokultibo konbentzionalerako nahikoa da 5-10 mL.

LABORATEGIAN ENTREGATZEKO EPEA

- Gomendatua: 24 ordu.
- Laborategira berehala bidaltzen ez bada, hoztu 2-8 °C-tan.